

702/2022 EBAZPENA, 2022KO ABUZTUAREN 18KOA, GARAPENeko ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIORDEARENA –ORDEZKO GISA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA EZ DAGOELAKO–, ZEINAREN BIDEZ ZUZENDU EGITEN DEN OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIAREN ABUZTUAREN 12KO 693/2022 EBAZPENEAN ATZEMANDAKO OKER MATERIALA

2022ko abuztuaren 12an, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak 693/2022 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako profesionalen lanbide-garapeneko mailaren behin-behineko esleipena argitaratzeko agintzen zen, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ezohiko deialdiaren esparruan.

Ikusi da oker material bat dagoela erreklamazioak aurkezteko epeari buruzko xedapen-zatiaren bigarren puntuan.

OINARRI JURIDIKOAK

BAKARRA.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2. artikularekin bat etorriz, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abuztuaren 12ko 693/2022 Ebazpenaren xedapen-zatiaren bigarren puntuan egindako akatsa zuzentzea, honela:

Honakoa esaten den lekuan:

“Erreklamazioak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanbide-garapeneko aplikazio informatikoan egin beharko dira, helbide honetan: <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>, 2022ko abuztuaren 16ko 9:00etatik 2022ko abuztuaren 29ko 14:00ak arte”.

Honakoa esan behar du:

“Erreklamazioak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanbide-garapeneko aplikazio informatikoan egin beharko dira, helbide honetan: <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>, 2022ko abuztuaren 16ko 9:00etatik 2022ko abuztuaren 30eko 24:00ak arte”.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 18a

JOSUNE RETEGI ORMAZABAL

GARAPENeko ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIORDEA

(Ordezko gisa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria ez dagoelako)